



NEKAZARITZAKO MAKINEN ERREGISTRO OFIZIALA:

*(uztailaren 19ko 1013/2009 Errege dekretua eta 2011ko apirilaren 5eko 214 zk.
Foru Agindua).*

Ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuak nekazaritzako makinak ezaugarriak eman eta makinak inskribatzeko beharrezko baldintzak ezartzen ditu. Dekretuaren arabera, **nahitaez** inskribatu behar dira makinak ondorengo kasuetan:

- Makina berria gehitzen denean nekazaritzako jarduerara.
- Beste herrialdeetatik ekartzen direnean makinak. (nahiz eta ez berria izan)
- Lan eta Zerbitzuetako sektoretik etorriak, nekazaritzako sektorerara gehitzen direnean makinak.
- Titulartasun aldaketak (transferentziak, jaraunspenak, etab), nahiz eta erabilera edo leku aldaketarik ez izan.
- Fitosanitario eta ongariak emateko makina izanez gero (gaur egun erabiltzen direnak ere).

Aipatutako dekretuko II. Eranskinean eta 214 zenbakiko Foru Aginduan deskribatzen dira derrigorrez inskribatu beharreko makina taldeak:

- a) Edozein mota eta kategoriko nekazaritza eta baso traktoreak
- b) Motokultoreak
- c) Gurdi traktoreak
- d) Bere indarrez dabilen edozein mota, potentzia eta pisudun makinak.
- e) Zirkulazioan dabilen ibilgailuaren gehieneko masa 750 kg-tik gorako arrastaturiko makinak.
- f) Nekazaritzako atoiak
- g) Likidoak garraiatu eta zabaltzeko tanga-ibilgailuak
- h) Tratamendu fitosanitarioak emateko arrastaturiko edo esekitako edozein edukiera eta pisuko makinak.
- i) Ongariak banatzeko arrastaturiko edo esekitako edozein edukiera eta pisuko makinak.